



## UDALAK ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN EPE-AN IZENA EMATEKO EPEA IREKI DU

El Ayuntamiento abre el plazo para inscribirse en la OPE de personal técnico de administración general



Seguimos atendiendo con la mejor sonrisa  
Concertado con mutuas y San Prudencio



**AMURRIO**  
C/ Iritxusi 4-6,  
bajo · 01470  
**945 891 469**  
**LLODIO**  
Avda.  
Zumalakarregi  
3, bajo · 01400  
**946 721 927**



**TALLERES IÑAKI, S.L.** Katula-Ibarra, nº 9 (Gardea), Llodio, ÁLAVA, 01400.  
www.inaki.es 946 72 14 82

GRAMA NUEVO FORD MUSTANG MACH-E SIN OPCIONES. CONSUMO WLTP CICLO MIXTO DE 16,5 A 19,5 KM/100 KM. EMISIONES DE CO2 WLTP DE 0 KM. MUY BUENA CONFORME A LA NORMATIVA VIGENTE. Iñaki.es

FUNERARIA  
**LARRAZ**  
EHORZTETXEA

**CADA PERSONA ES ÚNICA. SU DESPEDIDA, TAMBIÉN.**

Funeraria Larraz te ayuda a dar el mejor adiós a tus seres queridos.



FUNERARIA LARRAZ EHORZTETXEA.  
SERVICIOS FUNERARIOS INTEGRALES EN ARABA Y BIZKAIA DESDE 1944

**Llodio:**  
C/ José María, 36  
Teléfono: 94 672 77 50  
**Amurrio:**  
Pol. Ind. Kartzadako A1  
Teléfono: 94 672 77 50

**Arrigorriaga:**  
C/ La Cruz, 1  
Teléfono: 94 671 00 61  
**Amorebieta:**  
San Pedro, 26  
Teléfono: 94 671 00 61

[www.funerialarraz.com](http://www.funerialarraz.com)





## Laudiok berrerabiltzeko kanal berritzailea estreinatuta du, Aiarako Kuadrillak bultzatua

Aiarako Kuadrillako Hondakinak Biltzeko Zerbitzu Mankomunatuak bere marka berritu du eta proiektu berritzaileak jarri ditu abian, ekonomia zirkularren eta 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuen ildotik. Horien artean, nabarmentzekoa da "Truke-Kutxa" programa. Armairuak dira, eta jendeak hainbat elementu elkartrukatzeko sustatu nahi da horien bidez, besteak beste; tresna elektriko eta elektroniko txikiak, liburuak, CDak, arropa eta jostailuak. Horrez gain, hala nahi duten herritarrek iragarkiak jartzeko aukera izango dute, materialak eskatu edo kasuan kasuko elementuak entregatzeko. Horretarako, iragarki-taula bat ipini da. Truke-Kutxa hauek Lamuza parkeko Etxe Nagusian eta Aretako Kultur Etxean daude.

Horrez gain, Arantzar kalean dagoen herriko Garbigunean berrerabiltzeko etxola bat paratu da, herritarrek tamaina handiagoko elementuak utzi eta elkartrukatzeko, hala nola, armairuak eta bestelako altzariak. Aiarako Kuadrilla web-aplikazio berri bat taxutzen ari da, etxolan dauden objektuen eskaintza uneoro ezagutu ahal izateko. Etxetik erreserbatzeko aukera ere eskainiko da aplikazioan. Datorren udazkenara begira, eskualdeko gremioek ekintza ugari bideratuko dituzte konpontze-lanen (altzariak, zapatak, ehungintza, tapizeria, etab.) nahiz autokonponketaren sektorea sustatzeko.

## Laudiu estrena un innovador canal de reutilización, impulsado por la Cuadrilla de Ayala

El Servicio Mancomunado de Recogida de Residuos de la Cuadrilla de Ayala ha renovado su marca y puesto en marcha novedosos proyectos en línea con la economía circular y los Objetivos de Desarrollo Sostenible 2030. Entre ellos destaca el programa "Truke-Kutxa". Se trata de unos armarios que buscan fomentar el trueque de diversos elementos, como pequeños aparatos eléctricos y electrónicos, libros, CDs, ropa y juguetes, entre otros. Pero no es lo único, porque los vecinos que así lo deseen también podrán colgar sus anuncios para solicitar materiales o realizar propuestas de entrega de elementos que no pudieran depositarse en el interior de los mismos. Para ello se ha habilitado un tablón de anuncios. Estas "Truke-Kutxak" se ubican en la Casa Matriz del parque de Lamuza y en la Casa de Cultura de Areta.

Además de todo ello, en el Garbigune local, asentado en la calle Arantzar, se ha instalado una caseta de reutilización para que la ciudadanía deposite e intercambie elementos de mayor tamaño, tales como armarios o muebles. La Cuadrilla de Ayala ya está trabajando en una nueva aplicación web que permitirá conocer a cada momento la oferta de elementos de la caseta. También ofrecerá la posibilidad de reservarlos desde casa. De cara al próximo otoño se prevé la celebración de numerosas acciones de la mano de gremios de la comarca con el objetivo de promover y fomentar el sector de la reparación (muebles, zapatos, textil, tapicería, etc.) o la auto reparación.





## Udalak administrazio orokorreko teknikarien EPE-an izena emateko epea ireki du

Laudioko Udalak hasiera eman dio 2020ko enplegu publikoaren eskaintzan izena emateko prozesuari, txanda libreko modalitatean. Administrazio orokorreko bost teknikari-plaza deitu dira: plazetako hiruk derrigorrezko 4. hizkuntza-eskuzuna dute, eta beste bik derrigorrezko 3. hizkuntza-eskuzuna.

Eskabideak udaletxean bertan presentzialki formalizatu ahalko dira, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), edo egoitza elektronikoaren bidez. Izena emateko prozesua abuztuaren 5era, hau barne, arte egongo da zabalik. Oinarriak eta beharrezko dokumentazio guztia herritarren eskura daude udal-webgunean, enplegu publikoaren eskaintzei dagokien atalean.

### Betekizunak

Oinarri orokorretan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, titulu akademiko hauetakoren bat eduki beharko da, edo horiek eskuratzeko eskubideak ordainduta: Zuzenbidea, Politika eta Administrazio Zientziak, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Ekonomia, Aktuaritza eta Finantza Zientziak edo baliokidea. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da.

Hautaprotetan izangai gisa izena ematea eskatzen dutenek azterketarako eskubide-tasak ordaindu beharko dituzte, indarrean dauden udal ordenantza fiskaletan xedatutakoarekin bat. Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira azterketa-eskubideak.

## El Ayuntamiento abre el plazo para inscribirse en la OPE de personal técnico de administración general

El Ayuntamiento de Llodio ha comenzado el proceso para inscribirse en la oferta pública empleo del 2020 para optar a cinco plazas de técnico o técnica de la administración general, en la modalidad de turno libre. Tres de las plazas cuentan con perfil lingüístico 4 de euskera preceptivo, y otras dos con perfil lingüístico 3 de euskera preceptivo.

Las solicitudes se podrán formalizar de manera presencial en el Servicio de Atención Ciudadana (SAC), o a través de la sede electrónica. El proceso de inscripción estará abierto hasta el próximo 5 de agosto, este incluido. Las bases y toda la documentación necesaria están a disposición de la ciudadanía en el apartado de la web municipal correspondiente a la oferta pública de empleo.

### Requisitos

Además de los establecidos en las bases generales, se deberá estar en posesión o haber abonado los derechos para su expedición de alguno de los siguientes títulos académicos oficiales: Derecho, Ciencias Políticas y de la Administración, Administración y Dirección de Empresas, Economía, Ciencias Actuariales y Financieras o equivalente. En el caso de las titulaciones obtenidas en el extranjero, se deberá presentar de la credencial que acredite su homologación.

Las personas que soliciten la inscripción como aspirantes en las pruebas selectivas deberán abonar las tasas de derecho a examen en los términos que figuran en las ordenanzas fiscales en vigor del Ayuntamiento. En todo caso, el pago de los derechos de examen se efectuará dentro del plazo de presentación de instancias.

PREPARA TU SOFTWARE:

soluciones tecnológicas  Codebit

RENUEVA TU HARDWARE:

 TPVs, CAJEROS, IMPRESORA DE TICKET.

**TICKETBAI**  
PREPÁRATE AL CAMBIO

En vigor a partir del 1 de enero de 2022



Tu servicio de informática en el Alto Nervión

Industrialdea Pb. 3-6, 01400 LAUDIO  
T 94 6727757 · M 686 979 068  
computer@avacon.com

**AVA**CON  
INFORMÁTICA

## Granjako udal kiroldegiko eskubaloi kantxa konpontzeko lanak

Dagoeneko adjudikatu egin dira Lamuza-Granja udal kiroldegiko eskubaloi, hockey eta areto futboleko kantxaren berritze-lanak, eta egunotan hasiko dira. Jarduketa honen bidez, 2017an ipinitako zoladurak zekartzan arazoak konpondu nahi dira. Lanak orain dela hiru urte instalatutako materiala kenduta hasiko dira, espero ziren emaitzak eman ez dituelako. Zoladura berriaren oinarriaren gainean hezetasunaren aurkako babes bat, geruza anitzeko arrastel-sistema moteltzaile berria eta pago zur gogorrezko tronadura edo oholza berria ipiniko dira. Instalatu den sistemak Europako kirol-lurzorueterako hainbat arau betetzen ditu (EN 14904: A4, DIN 18032-2) eta Nazioarteko Saskibalo Federazioaren (FIBA) homologazioa ere badauka. Besteak beste, Gasteizko Buesa Arenan zein Bilboko Etxetxua-La Casilla kiroldegiko azpiegiturretan instalatutako zurezko lurzoruen ezaugarri mekaniko eta akaberak izango ditu. Obra egiteko epea 10 astekoa da, eta aurrekontua 155.575,27 eurokoa, BEZa barne.

## Reparación de la cancha del polideportivo municipal de La Granja

Ya se han adjudicado los trabajos de renovación de la cancha de balonmano, hockey y fútbol sala del polideportivo municipal de Lamuza-Granja, que arrancarán en los próximos días. A través de esta actuación se pretende solucionar el problema que arrastra el pavimento de esta pista deportiva, sustituido en 2017. Los trabajos comenzarán con la retirada del material instalado hace tres años. Sobre la base del nuevo pavimento se incorporará una barrera contra la humedad, un nuevo sistema de rastreles multicapa con amortiguación y finalmente la nueva tarima de haya maciza.

El sistema que se instalará cumple diferentes normas europeas para suelos deportivos (EN 14904: A4, DIN 18032-2) y está homologado, además, por la Federación Internacional de Baloncesto, la FIBA. De hecho, será de similares características mecánicas y de acabado a los suelos de madera instalados en infraestructuras de la talla del Buesa Arena en Gasteiz o La Casilla en Bilbao. El plazo de ejecución de esta obra es de 10 semanas, con un presupuesto total que asciende a 155.575,27 euros, IVA incluido.



## Laudioko gazteek bat egin dute Nerbioi ibaia garbitzeko eta sentsibilizatorako jardunaldiarekin

Ekitaldia Udalak eta URAk antolatu zuten

Hilaren hasieran, herriko dozenaka nerabe eta gazte bat egin zuten Uraren Euskal Agentziak diseinatutako sentsibilizazio-jardunaldian parte hartzeko. Ekimen horren bidez lortu nahi den helburua da gazteak kontzientziatu eta sentsibilizatzea ingurune urtarraren eta, kasu honetan, Nerbioi ibaiaren osasun-egoeraren garrantziaz.

Parte-hartzaileak Nerbioi ibaiaren bazterretara jaitsi ziren, Zubiko Kurajo kalearen parean (oinekoentzako zubiaren ondoan), izan ere, duela gutxi sastrakak kendu zituzten handik, eta azken hilabeteetan metatutako hondakin solidoak bildu beharra zegoen. URAk beharrezko material guztia eman zuen, eta Udalak plastikozko poltsak. Bilketalanen ostean, hondakinak plastiko baten gainean pilatu ziren, bildutakoa aztertzeko. Jardunaldiaren koordinatzaile ere ibili zen URAko teknikari batek azalpenak eman zizkien adingabeei. Kaleak garbitzeko zerbitzuko beharginak (FCC) arduratu ziren hondakinak handik eramateaz.

Urteak daramatza URA Agentziak hainbat udal eta kolektiborekin batera herritarrak zuzenean inplikatzeko eta pentsamolde-aldaketa sustatzeko lanetan, ibaia kontserbatu eta zaindu beharreko den ondare amankomun gisa ikus dadin.

## Las y los jóvenes de Laudio se suman a la jornada de sensibilización y limpieza del río Nervión

El Ayuntamiento organizó el acto con la colaboración de URA

A comienzos de mes decenas de adolescentes y jóvenes de la localidad participaron en la jornada de sensibilización que diseñó la Agencia Vasca del Agua, URA. La iniciativa buscaba concienciar y sensibilizar a las y los más jóvenes sobre la importancia que tiene preservar el buen estado de salud del medio acuático y, en este caso, del río Nervión a su paso por el municipio.

Las y los participantes bajaron a los márgenes del cauce del Nervión, a la altura de Zubiko Kurajo (junto al puente peatonal), recientemente desbrozados, para recoger los residuos sólidos que se habían acumulado durante los últimos meses. URA facilitó todo el material necesario y el Ayuntamiento las bolsas de plástico. Tras la recogida, los residuos se acumularon sobre un plástico para ser analizados. Uno de los técnicos de URA, también coordinador de la cita, ofreció las explicaciones oportunas a las personas participantes. El servicio de limpieza viaria (FCC) fue el encargado de retirar los residuos del lugar.

URA lleva años colaborando con diversos ayuntamientos y colectivos para involucrar directamente a la ciudadanía y fomentar un cambio de mentalidad de manera que se entienda el río como un patrimonio que es de todos y todas y que se debe conservar y cuidar.



## Laudioarrek aurrekontuetako 200.000 euroren xedea erabakitzeko aukera izango dute

luz, Ander Añibarroren gidaritzapean, gobernu taldeak aurrekontuetan parte hartzeko prozesua jarri zuen martxan Laudion lehen aldiz, audioarrek euren ideiak eman eta etorkizuneko Laudio zehazteko aukera izan zezaten. Bada, udal gobernu 2022ko kontuak idazten ari da, eta beste behin ere herritarren iritzia jaso nahi du. Oraingo honetan, herritarren esku utziko du erakundeak 200.000 eurori emango zaion erabilera erabakitzea.

Prozesuaren lehen fase honetan, audioarrek euren ideiak udaletxean bertan aurkeztu dituzte, edo udalaren webgunearen bitartez, betiere, proposamenak egiteko oinarrietan xedatu diren baldintzak betez. Bigarren fasea abuztuan hasiko da: jasotako proposamenen bideragarritasuna aztertuko dute udal arloek, ikuspuntu juridiko, tekniko eta ekonomikotik. Legezkoak eta bideragarriak diren proposamenak hirugarren fasera igaroko dira, zeina irailaren lehen hamabostaldian bideratuko baita. Orduan, zein proiektu gorpuztea nahi duten bozkatu beharko dute herritarrek. Botoak udaletxean bertan edo udalaren webgunearen bidez eman ahalko dira.

Azken fasean, herri-bozketaren emaitzak aztertuko dira eta proposamen bozkatuenak 2022ko aurrekontu proiektuan sartuko dira.

### Herritarren parte-hartzeak markatutako legealdia

2020tik 2021era, hau da, parte hartzeko aurrekontuak martxan egon diren urteetan, auzoen hainbat proposamen gauzatu ditu Udalak, hala nola Zuberua kaleko eta inguruko aparkalekuak berrantolatzea, bizikletak garbitzeko gune bat atontzea, Laudio Kultur Plan Estrategikoa idaztea nahiz Arraño askaltzeko gune bat egokitzea. Horrez gain, bidegorria berrasfaltatzeko lehen fasea ere aurrera eraman da, kiroldegiko kantxa berritzeaz gain, eta aurreikusia dago Lamuzako parkeko irisgarritasuna hobetzea eta Apaluetako haur-parkean estalki bat paratzea. Gainera, urtea amaitu baino lehenago, skatepark-a berritu eta pumtrack pista berria egongo da.

## Los vecinos de Laudio escogerán la finalidad de los 200.000 euros de los presupuestos participativos

El año pasado, el equipo de gobierno liderado por Ander Añibarro puso en marcha por primera vez en Laudio un proceso de presupuestos participativos para que las y los audioarras pudieran aportar sus ideas y definir el Laudio del futuro. Pues bien, el gobierno local ya está inmerso en la redacción de las cuentas de 2022 y, una vez más, quiere contar con la opinión de sus vecinos y vecinas. En esta ocasión, la institución dejará en sus manos el porvenir de 200.000 euros.

En esta primera fase del proceso, las y los audioarras han presentado sus ideas de manera presencial en el propio Consistorio o a través del formulario que se ha incorporado a tal efecto en la web municipal. En la segunda fase, que arrancará en agosto, las diferentes áreas municipales analizarán la viabilidad de las propuestas recibidas desde los puntos de vista jurídico, técnico y económico. Las que sean legales y viables pasarán a la tercera fase, que se llevará a cabo durante la primera quincena de septiembre. Será entonces cuando los y las vecinas tendrán que votar qué proyecto quieren que se materialice.

En esta última fase se analizarán los resultados de la votación popular y las propuestas más votadas se incorporarán al proyecto de presupuestos de 2022.

### Una legislatura marcada por la participación ciudadana

Entre 2020 y 2021, años en los que han estado en marcha los presupuestos participativos, el Ayuntamiento ha materializado diversas propuestas vecinales, como la reordenación de los espacios de aparcamiento en la calle Zuberua y su entorno, la instalación de un espacio para limpiar bicicletas, la redacción del Plan Estratégico de Cultura de Laudio, o el acondicionamiento de un merendero en Arraño. También se ha llevado a cabo una primera fase de reasfaltado del bidegorri, se ha renovado la cancha del polideportivo, y está previsto mejorar la accesibilidad al parque de Lamuz y colocar una cubierta en el parque infantil de Apaluet. Antes de que el año llegue a su fin, también se renovará el skatepark y se construirá una nueva pista de pumtrack.





## Udalak kautelaz eten du udal-hiltegiaren jarduera

Hilaren hasieran, Laudioko Udalak udal-hiltegioko instalazioak ixtea agindu zuen, prebentzioz, hondakinen kudeaketan eta tratamenduan akatsak antzeman ondoren. Beste ingurumenarazo batzuk sor ez daitezzen, Ander Añibarro buru duen gobernu taldeak hiltegia berehala ixteko erabakia hartu du. Gertatutakoaren berri eman zaie agintari eskudunei dagoeneko, eta, honenbestez, sakon ikertuko dira instalazioen funtzionamenduan ezohiko egoera hori eragin dituzten zergatiak.

Egitura 2019an egokitu eta birmoldatu zen. Orduan, saneamendu-sarean jarduketak egin ziren kolektoreak eta kutxatilik ordezkatuta, ur beltzak eta euri-urak -Udalaren baliabide propioak- modu ordenatuan bereizteko. Estalkiko forjatuak ere partzialki konpondu ziren, elementu batzuk, habexkak kasu, zarpiatuak zeudelako. Errailari eusten dion egitura metaliko guztia ere tratatu zen (sakrifikatutako piezak zintzilikatu eta barnean lekualdatzeko erabiltzen da). Halaber, enpresa berari eskuordetu zaio horrelako instalazioetarako egokiak diren estaldura berezidun horma eta lurzoru guztien tratamendua. Iturgintza-instalazioa ere partzialki konpondu zen, eta odola biltzeko aska bat instalatu. Orain, hilketatik datorren odola biltegi eramangarri batzuetan pilatuko da, ondoren kudeatzeko. Kudeatzaile baimendu batek egingo du lan hori.

Box-a, hau da, animaliak hiltzen diren tokia ere egokitu beharra zegoen osasun-araudia betetzeko, eta, beraz, ordezkatu egin zen. 2019ko ekitaldian, lazareto aretoa eta animalien beste egonleku batzuk ere hobetu ziren, eta txukuntze eta hobekuntza lan txikiak egin ziren (esate baterako, saneamendu-sarea garbitzea edo hobi septikoa hustea, udal-brigaden kontura). Azkenik, hiltegioko zazpi hotz-ganberetatik bat konpondu zen, kamioiak kargatzeko moilatik hurbilen zegoena, garrantzitsuenetako bat. Jarduketa horiek gauzatzeko, 140.000 euro baino gehiago inbertitu zituen Udalak.

## El Ayuntamiento suspende cautelarmente la actividad del matadero municipal

A comienzos de mes el consistorio laudioarra decretó, de manera preventiva, el cierre de las instalaciones del matadero municipal tras detectarse posibles deficiencias en la gestión de residuos y su tratamiento. En aras de evitar que puedan surgir otros problemas de tipo medioambiental, el equipo de gobierno, liderado por Ander Añibarro, ha tomado la decisión de proceder a su clausura de manera inmediata. Lo ocurrido ya se ha puesto en conocimiento de las autoridades competentes, y, a partir de ahora, se investigarán a fondo las razones por las que se ha generado esta situación anómala en el funcionamiento de las instalaciones.

La estructura se había adaptado y remodelado en 2019. Entonces se realizaron actuaciones en la red de saneamiento sustituyendo colectores y arquetas, de cara a separar de forma ordenada las aguas fecales y pluviales -recursos propios del Ayuntamiento-. También se repararon parcialmente los forjados de cubierta porque algunos elementos, como las viguetas, estaban parcialmente afectados por la corrosión, además de presentar desconchados. Además, se realizó el tratamiento de toda la estructura metálica que soporta la carrilería empleada para colgar y trasladar internamente las piezas sacrificadas. Asimismo, se ha delegado en la misma empresa el tratamiento de todas las paredes y suelos con revestimientos especiales aptos para este tipo de instalaciones. También se reparó parcialmente la instalación de fontanería, y se instaló la pila de recogida de sangre que, junto con un sistema de bombeo, debía servir para acopiar la sangre procedente de los sacrificios en unos depósitos portátiles para su posterior gestión. El trabajo lo efectuará un gestor autorizado.

El box, lugar donde se realiza el sacrificio de los animales, era otro de los elementos que había que adecuar para cumplir la normativa que exige sanidad, así que se sustituyó. Durante el ejercicio de 2019 también se mejoró la sala lazareto y otros espacios de estancia de animales, y se llevaron a cabo pequeños trabajos de adecentamiento y mejora interior (ejemplo de ellos son la limpieza de la red de saneamiento o el vaciado de la fosa séptica, a cargo de las brigadas municipales). Finalmente, se reparó una de las siete cámaras frigoríficas del matadero, la más cercana al muelle de carga de los camiones y una de las principales. Para ejecutar las citadas actuaciones el Ayuntamiento invirtió más de 140.000 euros.



## Gazte-azulandegien sasoia inauguratu zuen Beatriz Artolazabal sailburuak Ermuko Andra Mariren santutegian

Justizia, Berdintasun eta Gizarte politiketako sailburu Beatriz Artolazabal Laudion kokatutako gazte-azulandegian, Ermuko Andra Mariren santutegian, eta hasiera ofiziala eman zion horrela azulandegien programaren aurtengo edizioari. Ekimenaren helburua da gazteak borondatez eta irabazi-asmorik gabe konprometitzea gizarte-proiektzioa duten lanetan. Bisitan, Ander Añibarro alkate udalburua eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria zuzendari Agurtzane Llano izan ziren, baita udaleko hainbat zinegotzi eta arduradun ere.

### Azulandegietako boluntarioak

Estatuko hainbat lekutatik iritsitako 18 eta 26 urte bitarteko dozena bat gaztek dihardute Laudioko santutegiaren inguruko ondarea berreskuratze lanetan. Zehazki, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) aldatzeko proiektuaren eta Ermuko Andra Mariren santutegiaren nahiz Santa Luzia baselitzaren monumentu multzoa Babestu eta Kontserbatzeko Plan Bereziaren barruan sartzen dira. Lan-ildo horri helduta, santutegiaren inguruko arkitektura-elementu txiki batzuk berreskuratzen ari dira, hala nola, Mintegietako karobia eta beste karobi batzuk, elurtegia, Bilboko Burdin Hesiaren egitura eta seinaleztatutako bidexkak.

Azulandegi horrez gain, Euskadik beste lau ditu Sopuertan, Maeztun eta Gaubean. 15 egunez, ohiko aisiaz bestelako jarduerak egiten dituzte parte-hartzaileek, era kreatiboan eta elkarrekiko lankidetzan. Gainera, ohiko ibilbideetatik kanpoko landa-eremuak ezagutzeko eta kultura-elkartruke aberasgarria bizitzeko aukera ere izaten dute.



## La consejera Beatriz Artolazabal inauguró la temporada de campos de voluntariado juvenil con una visita a Santa María del Yermo

La consejera de Justicia, Igualdad y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, visitó el pasado día 15 el campo de voluntariado juvenil de Laudio, ubicado en el entorno del santuario de Santa María del Yermo, dando así inicio oficial a una nueva edición del programa Auzolandegiak. El objetivo de esta iniciativa es comprometer de forma voluntaria y desinteresada a los y las jóvenes en el desarrollo de un trabajo de proyección social, combinado con actividades complementarias a lo largo de dos semanas.

En su visita la acompañaron el alcalde, Ander Añibarro, y la directora de Juventud del Gobierno Vasco, Agurtzane Llano, así como de diferentes ediles y responsables municipales del Consistorio.

### Voluntariado en los campos de trabajo

El programa, que busca recuperar el legado patrimonial del entorno del santuario, cuenta con la participación de una docena de jóvenes de entre 18 y 26 años, procedentes de diferentes puntos del estado. En concreto, los trabajos se enmarcan en el proyecto de modificación del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) del municipio y del Plan Especial de Protección y Conservación del conjunto monumental de Santa María del Yermo y la ermita de Santa Lucía. De esta manera, se están recuperando varios elementos arquitectónicos menores del entorno del santuario, como son el calero de Mintegieta u otros caleros, la nevera y la estructura del denominado Cinturón de Hierro de Bilbao, además de las sendas señalizadas.

Además de este campo de trabajo, Euskadi cuenta con otros cuatro, ubicados en Sopuerta, Maeztu y Gaubea. A lo largo de 15 días, las personas participantes realizan actividades huyendo del ocio convencional de forma creativa y cooperativa. Además, tienen la posibilidad de conocer zonas rurales fuera de las rutas tradicionales y de vivir un enriquecedor intercambio cultural.





# KULTURA 2021

## ABUZTUA / AGOSTO

<p> <b>Rojo Telón "Nudo"</b> Abuztuak 4, ostirala / Viernes 4 de agosto 20:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>Acordes Navarros</b> Abuztuak 7, larunbata / Sábado 7 de agosto 20:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>EIA "Espera"</b> Abuztuak 13, ostirala / Viernes 13 de agosto 20:00 Alberto Acero</p> <p> <b>Arrizkuzubi H.K.</b> Herri Kirolak Abuztuak 14, larunbata / Sábado 14 de agosto 18:00 Aldai Plaza</p> <p> <b>Lankaietako Lagunak</b> Kalejira / Pascualles Abuztuak 15, igandea / Domingo 15 de agosto 9:00 Erdigunea, suzokak / Centro, barrios</p> <p> <b>Los Cinco Bilbainos</b> Abuztuak 15, igandea / Domingo 15 de agosto 20:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>S.P. Herriaren</b> Pilota partidak / Partidos pelota Abuztuak 16, astelehena / Lunes 16 de agosto 10:00 Lamuzako frontoia / Frontón de Lamuza</p> <p> <b>Coral Andere</b> Meza kantatua / Misa Cantada Abuztuak 16, astelehena / Lunes 16 de agosto 11:00 San Pedro Eliza / Iglesia de San Pedro</p> <p> <b>Los Arlotes</b> Abuztuak 16, astelehena / Lunes 16 de agosto 12:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>Aurresku</b> Lehiaketa / Concurso Laguntzailea / Colabora: Itxarkundia Abuztuak 16, astelehena / Lunes 16 de agosto 18:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>Fandago eta Arin Arin</b> Lehiaketa / Concurso Laguntzailea / Colabora: Itxarkundia Abuztuak 16, astelehena / Lunes 16 de agosto 19:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>XXXI Laudio Saria</b> Memorial "Pablo Bilbao" omenaldia Abuztuak 17, asteartea / Martes 17 de agosto 10:00 Zumalakarregi etorb.</p> <p> <b>La Bella Tour</b> Zirkua / Circo Abuztuak 17, asteartea / Martes 17 de agosto 20:00 Alberto Acero</p> <p> <b>Tirolina eta jumping</b> Haurrentzat / Para niños y niñas Abuztuak 20, ostirala / Viernes 20 de agosto 17:00 Lamuza parkea</p>	<p> <b>Traka Matraka</b> Ikuskizuna / Espectáculo Abuztuak 20, ostirala / Viernes 20 de agosto 20:00 Lamuza parkea</p> <p> <b>Arate</b> Artzain txakurren erakustaldia + Bertsolariak Exhibición de perros pastores + Bertsolaris Abuztuak 21, larunbata / Sábado 21 de agosto 18:00 Laborio</p> <p> <b>Los Barlou "Set Up"</b> Zirkua / Circo Abuztuak 22, igandea / Domingo 22 de agosto 20:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>Cúpula 2021 "Andrómeda"</b> Parte hartzeko astronomia / Astronomía participativa Abuztuak 24, osteguna / Jueves 24 de agosto 20:00 Centro EPA</p> <p> <b>Itxarkundia</b> Abuztuak 27, ostirala / Viernes 27 de agosto 13:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>Maite Guevara "Qué buen día"</b> Abuztuak 27, ostirala / Viernes 27 de agosto 20:00 Alberto Acero</p> <p> <b>Akelarre</b> Abuztuak 28, larunbata / Sábado 28 de agosto 13:00 Alberto Acero</p> <p> <b>Zaldi-Proba</b> Lauzaldi Abuztuak 28-29, lar-iga. / Sáb y dom. 28 y 29 de agosto 18:00 Udak probalekua / Práctico municipal</p> <p> <b>Dupla</b> Kontzertua / Concierto Abuztuak 28, larunbata / Sábado 28 de agosto 21:00 Lamuzako frontoia / Frontón de Lamuza</p> <p> <b>Korterraza</b> Laborretaraien proiektzioa / Proyección de cortame- trajes Abuztuak 28, larunbata / Sábado 28 de agosto 22:00 Aldai Plaza</p> <p> <b>Erraldoi eta buruhandien erakusketa, Laudio Gaiteroek alaitua</b> Exposición de gigantes y cabezudos amenizada por Laudio Gaiteroak Abuztuak 29, igandea / Domingo 29 de agosto 12:00 Herriko Plaza</p> <p> <b>Agrup. Musical San Roque</b> Kontzertua / Concierto Abuztuak 29, igandea / Domingo 29 de agosto 13:00 Aldai Plaza</p> <p> <b>Malen Atxa</b> Joaldia / Actuación Abuztuak 29, igandea / Domingo 29 de agosto 20:00 Herriko Plaza</p>
--	---

**OHARRA:** euria izanez gero, Herriko Plaza eta Alberto Acero plazakoekintzak Aldai plazara mugituko dira.

**NOTA:** en caso de lluvia, las actuaciones programadas en la Herriko Plaza y plaza Alberto Acero se trasladaran a la plaza Aldai.



rotulosnervion.es



**946 72 77 22**

mucho + que **rótulos**